

J. Piaget eta Soziologia

Jokin Apalategi
EHUko irakaslea

Giza eta gizarte-zientzien alorrean behin ere ez gara geldituko ezagutza egiteko modu eta baliabide egokienez galdetzen. Planteamentu arrakastatsuak egon izan dira eta badaude, baina diziplinarteko aukera norbaitek eraginkortasunez erabili izan badu, hori J. Piaget izan da. Honela bada, nahiz eta artikulua honetan soziologia egiteko moldeari zer ekarri dion bereziki aipatu, hau guztia ez dabil filosofia, pedagogia, antropologia edo psikologia diziplinetatik ere hain urrun. Zergatik ailegatu zen soziologiara agertzen digu berak. Baita soziologiaren erabilpena partziala izan zela ere. Baina ez zela izan arinkeria esan dezakegu. Giza eta gizarte-jakintzetarako egiazko arrazoibidea aurkitzearen aldeko erronka egin zuen. Horrela, ezagutza soziologikoaren definizioa proposatu zigun. Azalpen soziologikoen eta psikologikoen arteko lotura objektu bera edukitzean datzala ere baieztatu zuen. Epistemologia bat eraiki daitekeela haurraren pentsamendu-prozesuaren ereduaren defenditu zuen. Inhibizioaren interpretazio adierazgarria seinalatu zuen. Bestalde, bere sozializazio-ikuspegiak mugimendu sozialen eginkizunen ildora garamatzala esan dezakegu. Lege orokorrak lortu nahia xede egin zuen.

In the field of human and social sciences we shall never tire of wondering what the most appropriate means and resources might be for the pursuit of knowledge. There have been, and continue to be, a range of successful approaches; but if any one person epitomises the effective use of the interdisciplinary option, then that person is J. Piaget. Although in this particular article we attempt to define his procedural model for sociology, what we offer is not beyond the realms of philosophy, teaching, anthropology, and psychology. His development of sociology, though only partial, was by no means insubstantial. He met the challenge of establishing a method of reasoning which was appropriate for the human and social sciences. Thus he proposed a definition of sociological knowledge, which states that the connection between sociology and psychology lies in the fact they have an object in common. He also held that an epistemology can be constructed from the thought processes of the child, and put forward a significant interpretation of inhibition. We might also say that his view of socialisation puts us on the trail of the action of social movements. His aim was to uncover universal laws.

1. Sarrera

J. Piaget ondo baino ere hobeto ezagutu, berarekin kolaboratu, haren obra aztertu eta miatu, eta hil ondoren harekiko harremanari atsedena emanik urte batzuetan, berriki birgogoeta egin dutenek, diziplina zientifikoen kategorizazio batetik so, atipikoa eta sailkaezina zela esan digute. Guk, geure aldetik, soziologia-arloan berak aurreratua eta plazaratua gaurko soziologia-jakintzaren argitan aztertzean, geure inpresioa laburbilduz adierazi behar bagenu, "ezagutza integralaren sortzaile" esaldiarekin izendatuko genuke. Izan ere, hasteko, soziologia-diziplinara, aurretik psikologia eta pedagogia ibilbidean gotorki jardunik, une jakin bateko behar zientifikoak eraginda heldu zen. Horren lekuko bere testu bat aldatuko dut hona:

Orain eta hemen haurraren sozializazio-ikuspuntuan ezarri nahi nuke neure burua, haurraren bilakaera inguru fisikora bezainbat inguru sozialera egokitzean baitago. Hori horrela izanik, ezin dugu hitz egin haurraz, gauza logikoa balitz bezala, soziala den eta zer zentzutan den galdetu gabe. Galderak poxelatuta nengoen; bazterten ere entseatu nintzen; etengabe birritzuli zait. Inongo originaltasun-pretentsio gabe gustatuko litzaidake esatea nora eraman izan nauten haurraren pentsamenduari buruzko ikasketa berezietan egindako nire gogoetek. Orri hauetan egitate gutxi baina jarrera bat aurkituko da. Nahi dudan bakarra da ulertua izan dadila, jarrera hori apriorizko gogoeta baten emaitza ez dela izan, aitzitik, piskanaka ezarri izan zaidala, haztamuka luze ibili ondotik eta mila esperientziaren aginduz. Gure eztabaiden orduan arduraz ahazten dugun hemen aipaturiko egitateen inguruko zertzelada honek bakarrik eman dezaioke interesik entsegu honi (Piaget, 1977: 203-239).

Eta behar zientifiko horrek, neurri eta zehaztasunez mugaduna izanik ere, jakintza-mota guztiak ardatzen dituenek, oinarritzko dena ikutzen du. Esan nahi baita, ezagutu eta landu zuen soziologia partziala izanik ere, bere argitasuna, seriotasuna eta originaltasuna erakusteko aski dela.

2. Egia eta aburua

Gure egunetan mendebaldeko gizarte liberalean garaitu den jarrera "eragin-kortasunarena" da. Ez da hala ere, negozio-, politika- edo teknologia-alorretara mugatzen den jarrera soil bat. Giza eta gizarte-jakintzak ere kutsadura horren pean bizi dira. Horrekin datuak arrazoinamendua ordezkatu duela, edota aburuak egia gailendu duela adierazi nahi dugu. Biak elkarrekin bizitzera beharturik daude-nean ere, guk batak bestea uxatzen irudikatu ditugu. Ondorioz, oihaneko eta taliongo legepean sartu da jakintza-mundua.

Arazo horrek sakonki arduratu zuen J. Piaget, bere garaiko giza eta gizarte-jakintzetako pentsalari ospetsuenak arduratu zituenez. Ez zuen ezberrik arrazoinamendu egiazkoa zela giza eta gizarte-jakintzen azken erronka.

Gai hau plazaratzean, arrazoinamendua bizitza sozialaren mendeko den ala ez aztertzeak hasten da. Hiru ikuspuntutatik soegizta daitekeela esango zaigu: praktikarenetik, balorearenetik edo orobat teoriko den arrazoinamenduaren sorrerako mekanismoenetik. Lehenari dagokionez, ez dago ados arrazoinamendu egiazkoaren esplikazioan gizartearen kontsiderazioa erabiltzea galerazten duten arrazionalistekin. Egiaren eraikuntza, kontzientzia kontuan hartzera behartzen gaituena, balore-epaiketaren osotasunean oinarritutako esperientzia barnekor eta ezin bilduz-

koari zor diogula aitortu zuen. Horrela bada, esperientzia moralaren alboan hura bezain erreala den esperientzia logikoa legoke. Eta hau guztia ez da ezertan aldatzen ikuspegi soziologikoaren ondorioz. Zeren esperientzia barnekoiena ere, azken funtsean, bizitza sozialetik janaritzen baita, nahiz eta aburuari eta norma kolektiboetara eratziki, indibiduoak beti bere esperientziaren izenean hitz egingo baitu. Orobat bere aburua bestearenari edo aburu orokorrari oposatuko baitzaio. Kontzientziak beti oposatuko dion bezala kolektiboari unibertsala, hots, “aburuari” “egia”.

Honen guztiaren ondorio, argi dago bada, balorearen ikuspuntuan kokatzen da.

Hori horrela ezartzean bakarrik esperientzia logikoaren mekanismoa aipatzera igarotzen da. Ez digula inolako balore berririk ekartzen esaten zaigu hasteko. Gehienera, ikuspegi deskribatzailea eta normatiboa edo praktikoa bereiztera garatzea diosku gainera. Bere aldetik analisi psikologikoak edo soziologikoak ez luke ezer legezkatuko. Kontzientzia logikoa nola heldu izan den bere normak hautatzera galdetzen jarraitzen du ondotik. Etorkizunari so kontsideratzen bada arazoa, hautatua izan delako datutik ez da jarraitzen horretan beti iraun behar duenik, baldin eta zehaztasunak aldatu izan badira.

Argi baitago zaila dela egitate deretxora ez igarotzea. Psikologiak, soziologiak edo logikak deskribapenaren izenean legea eraikitzen dute. Hala ere, psikologismoari bezala soziologismoari ihardetsi liezaieke egia ideala dela gogoraraziz. Eta logizismoari, berriz, ideal hori ez dela behin betiko, aitzitik, etengabe antolatzen dela oroitaraziz. Horrela bada, gaiak ezagutzaren soziologiara bideratzen gaitu.

3. Ezagutzaren soziologia

Epistemologia genetikoaz jardungo denez, konparatua ere deituko du. Hiru esplikazio-motaren elkargune izateak definituko luke: alor soziologiko, biologiko eta psikologikoez osaturik izateak, alegia. Soziologiak biologiarekin eta psikologiarekin dituen harremanak konplexu izendatu zituen eta deskribatzen ere entseatu zen (Piaget, 1977: 15-99). Lehenik, abereen neurriko soziologia eta psikologia aipatuko dizkigu, inolako eztabaidarik sortzen ez duen abereen biologiararen alboan. Abere “sozialetan” iada senezko portaerekin bat talde familiar edo gregario berekoen artean elkarrekintza “kanpotiarrak” izaten direla diosku. Portaera indibiduala aldatzeko lain diren egitate horiek, propioki sozialak izanik, transmisio eta elkarrekintza kanpotiarrekin eginda daudenez, egitura organiko eta senezkoen esplikazioa alboraturik, interdependentzia eraikitzaileen sistema bezala kontsideratutako taldearen osotasunaz jardungo den metodo analitiko eskatzen dutela esango zaigu.

Bigarrenik, hala ere, esplikazio biologikoak barreneko edo odoleko transmisioak darabiltzanean, esplikazio soziologikoak, aldiz, indibiduen arteko transmisioak eta kanpoko elkarrekintzak edo kulturakoak erabiliz harekiko bereizketa handia hartzen duela adieraziko zaigu. Esan nahi baita, fenomeno demografikoaren izaera biologikoak indibiduen kanpoko elkarrekintzetatik sortzen diren balore-sistema eta araudien menpe daudela, esplikazioari dagokionez.

Hirugarrenik, ezagutza-soziologiaren definizioa ematen digu: kirio-sistemaren heldutasunaren eta indibiduoaren sozializazioan dauden hezkuntza-presioen arteko harremanetan legoke, alegia. Eta haurraren bilakaerak ezin aberatsago den esperientziaz alorra eskaintzen digu odoleko transmisioak eta transmisio kulturalak nola gertatzen diren jakiteko. Hizkuntza eta operazio intelektualak eskuratzekoan argi eta garbi agertzen dira esplikazio biologikoaren eta soziologikoaren arteko zerikusia eta bereizketa aldi berean.

Badirudi honetan guztian esplikazio psikologikoa ahanzi egin dela. Baina, ez da hori, ezta gutxiago ere. Berehalak esango zaigu, haurrak ez dituela “bizitza sozialaren” presioa edo “errealitate fisikoarena” pasiboki pairatzen; aitzitik, eskaintzen zaionaren eta asimilatuz birrerakitzen duenaren artean bereizkuntza aktibo bat dagoela diosku. Beste gisa batean adierazita, errealitate biologikoaren eta sozialaren artean mentala dagoela, alegia. Nola agertzen digu, orduan, esplikazio soziologikoen eta psikologikoen arteko lotura?

Bien arteko lotura objektu bera edukitzean datzala, eta bereizketa, berriz, ikuspuntu ezberdin eta osagarriak izateak eragiten duela. Portaera gizatiar orotan izaera mentala eta soziala beti dira osagai. Esplikazio psikologikoak altxatutako arazo bakoitza esplikazio soziologikoarentzat ere beste hainbat gertatzen da, hala ere diferentzia batekin, lehenarentzat “ni-a” denean, bigarrenarentzat “gu-a” dela. Beste ezberdintasunik ere badago, psikologian soegiztatzailak besteen portaera norbera hunkitu gabe azter dezake; soziologian, aldiz, soegiztatzailak aztertzen duen osotasunarekin edo antzeko ala aurkako osotasunarekin bat egiten du. Hala ere, nahiz eta “gu-a” soziologiako nozioa izan, inpartzialitate intelektualaren eta kuraiaren ikuspuntutik eragiten dituen zailtasunak iada parte handi batean psikologiaren alorrean ageri direla esan behar da, zeren gizona/emaztea bat eta bera denez, bere funtzio mentalizatu guztiak berdin sozializatuta daude.

E. Durkheim-ek, soziologiaren berezitasuna demostratu nahirik, eta psikologiatik definitiboki urrutiratzeko, “totalitate nozioa” aipatu zuen, hots, egitateak ez direla beren ondorioengatik bakarrik esplikatzeko, aitzitik, ondorioek egitateetan duten eragina ere esplikazioko beharrezko parte dela (Durkheim,1967). Hori berori azpimarratuz, M. Mauss-ek gizon/emazteen osotasunen izaera aktibo eta sortzaileak aipatu zizkigun:

Gizarteak estatu dinamikoa eta fisiologikoa ikusi ditugu. Ez ditugu harri finko bezala ikertu, hots, estatu estatikoa eta hilotzatuan baleude hartu, eta are gutxiago zatikatu deretxoko arauetan, mitoetan, baloreetan eta prezioetan deskonposatuz... Egitate sozialek gizartearen totalitatea zalantzan jartzen badute, esan nahi dena da, soziologiaren printzipioa eta xedea taldea osotasun bezala aztertuz bere portaera osoa ezagutzea dela... Oro osorik kontsideratzean esentziala dena ikusi ahal izan dugu, gizon/emazteek beren buruaren kontzientzia hartzen duten osoaren mugimendua, biziaren izaera, gizarteko une iheskorra, alegia (Mauss,1966).

J. Piagetek bere aldetik, “totalitate” nozio hori psikologiarekin bateragarria dela erakutsi zuen, “Gestalt” edo “forma totala” aipatuz, horri egiten zaizkion kritikek soziologikoarentzat ere berdin balioko dutela esaten digularik. Esplikazio genetikoa - esplikazio orekatzailea, esplikazio diakronikoa-esplikazio sinkronikoa, kontzeptu-

-bikoteetako lehenak psikologian eta bigarrenak soziologian fenomeno bera izendatzen dute. Nola batean hala bestean ere, hiru egitura-tipo errepikatzen dira: erritmoena, jarraitutasunena eta taldeena. Horrez gain, alor bietan atzeman daitezke esplikazio zehatzak eta axiomatikoak (inplikazio-harremanena edo kausalitate-harremanenena).

Era berean, psikologiak kontzientziaren datuak ez duela kausalki ezer agertzen eta ondorioz esplikazio kausal bakarra kontzientziatik potaeretara igarotzen dena dela erakutsi digunez, soziologiak esplikazio ideologikoetatik akzio-esplikazioetarako bidea hartu behar du. Bestalde, azpiegitura- eta gainegitura-harremanen arazoa portaera-kausaltatearen eta errepresentazio-inplikazioen arteko harremanei estuki lotuta dago, nola inplikazio horiek ideologia desberdinen kasuan bezala prelogiko edo ia sinboliko direnean, hala errepresentazio kolektibo arrazionaletan bezala logikoki koordinatuak gertatzen direnean.

Bigarren arrazoi batengatik ere ezagutza soziologikoak baduela garrantzirik epistemologia genetikoarentzat, esango digu, hain zuzen, ikerketa soziologikoaren objektuak berak ezagutza kolektiboen garapena eta bereziki pentsamendu zientifikoaren historia oro lotzen dituelako. Bi galdera eginez agertzen digu beretzat ezinbesteko den soziogenesiaren eta psikogenesiaren arteko interdependentzia: nola formatzen diren nozioak hurraren sozializazio-aroan edota nozio berak nola bilakatu izan diren historian jarraituki nozio zientifikoaren eta filosofikoaren alorretan formulatutako galderen bidez.

“Mutazio intelektualen” kasua aipatuko digu adierazgarritzat soziologiaren eta psikologiaren esplikazioen harremana beharrezkoa dela frogatzeko. Izan ere, mutazio intelektuala azelerazio-faktore denez, ezin baita esplikatu kirio-sistemaren heldutasun soilarekin, edo ondare sozial hutsez, ezta bien arteko prozesu bakarrez ere. Eraikuntza operatorio bat gertatzen da: eskainitako ahalak kirio-sistemak egitura mentaletan gauzatzen ditu. Horrela, faktore biologiko berdina aldi berean faktore mental eta sozialean luzatzen da, eta azken bi faktore horien interdependentziak bakar-bakarrik esplika dezake ingurugiro kolektibo diferenteen arabera garapenean azerelazioak ala tinkaldiak gertatzea.

Geroztik, nola psikologian hala soziologian, ezagutzaren atalak anitz landuz findu dira.

Bi kontsiderazio-arlo jorratuko ditugu. Lehenik eta behin esan behar da, soziologia-psikologia harreman esplikatzailer interdependiente hura konfirmatu eta sendotu egin dela azken hamarkadetan. Gaur egun psikologia sozial gisa ezagutzen dugun jakintza-saila dugu horren lekuko. Eta esplikazio zientifikoaren kontzeptua, psikologia sozialean aipatzen delarik, testuinguru sozialaren izaeretatik abiatuz, baita igurikatze eta balolatze sozialetatik ere, beti prozesu psikologiko orokorrak ahantzi gabe egiten den portaera indibidualen esplikazioan, ulerkuntzan eta iragarpenean datza. Hori bai, esplikazioaren ulerkuntza eta iragarpen hori molde sistematikoan jasotako ebidentzia-kriterioak jarraituz egin behar da, hots, datu objektibo fidagarrietatik eratorritako inferentzia arrazionalak irizpidetzat hartuz (Cohen, 1980).

Honen guztiaren azpian eztabaida sendoak daude hainbat mailatan. Kausalitatearen ikuspegi errealistatik esplizitatzen entseatzan diren harremanak enpiriko huts diren enuntziatuak ez bezalakoak dira. Ondorioz, jakintza-legeen eta aktibitate esperimental batean normalki sortzen diren egitateen katearen arteko bereizketa egin behar da. Hain zuzen, jakintza-egitateen katearen demostrazioan datza. Bestalde, errealismoarentzat, jakintzaren ikuspegi estandarra mundua ixtean konfunditu egiten da, zeren errotik irekia baita. Sistema itxiak salbuespen gisa bakarrik gertatzen dira, eta laboratoriko ingurune mugatuetan gainera. Laboratoriko esperientziek balioko izateko egitura kausal teorikoa birproduzitzen prozesu erreala esplikatzen behar dituzte (Secord, 1986). Itxuraz errealismo kritikoa epistemologia eboluzionistaren laguntza suertatu zaio. Zer neurritan eta baldintzatan? Errealismo hori hipotetikoa denean, inolaz ere ez inozoa denean. Esan nahi baita, eboluzioak egitura kognoszitiboak sortzen dituzenez errealtateari aurrez aurre egiteko "laneko hipotesiz" hornitzen ditu. D.T. Campbell-ek idatzi duenez, bizitzak berak prozesu errealista hipotetiko bat iradokitzen du. Hortaz, gizon/emazteen ezagutza subjektuari kanpotiar zaizkion egituren neurriko birreikuntzan eta identifikazioan datzala esan genezake.

Areago urrats eginaz, ezagutzari dagokionez, metodologia-alorreko eztabaida bat ere aipatuko dugu: laboratoriko esperimentalitatearen eta elkarrizketa-galdeketen analisi multibariatuari asoziatutako metodologia korrelazionalaren artekoa, alegia. Nola lehenak hala bigarrenak fenomeno psikosozialak kausalki esplikatzen bidea onartzen dute. Ikuspegi korrelazionalatik esaten zaiguna zera da: korrelazioa ez da kausazioa, baina kausazioak korrelazioaren bat izaten du. Azken funtsean, kausalitatearen ikuspegi probabilistikoa defenditzen da. Horrela, denboran jarraitu izandako konjugazio erregular iraunkorren kausalitate-ikuspegia baztertuz, aldagai independente kausal bateko baloreek aldagai dependiente baten portaera espezifikoak ez dituztela determinatzen, aitzitik aldagai dependiente baten baloreek emateko dagoen probabilitateen banaketa espezifikoak determinatzen dutela baieztatzen zaigu (Mulaik, 1987: 18-32).

Alternatiba esperimental kausalitate-harremanak frogatzeko bide bakarra laboratoriora dela dio. Horretarako, aleatorizazioaren bidez taldeen baliokidetasuna ziurtatzen da, eta hori kontrol esperimentalaren ondorioz erator daiteke. Baina, aleatorizazioa inferentzia kausalerako bidean nahitaezkoa al da? Cronbach-ek ezetz dio (Greenberg eta Folger, 1988). Aleatorizazioa barren baliotasunaren ziurtatzailea besterik ez dela esango zaigu. Baina inferentzia kausal batek horrez gain orokortasuna inplikatzan du. Kasuen muestreo ugari eta dibertsoak justifikatu ohi du, ez bairik ez, baina berdin justifikatu dezake kasu bakar baten ulerkuntza sakon batek.

Bigarren eta azken kontsiderazio bat ere egin nahi dugu, psikologia sozialaren objektuari loturikoa bera. J. Piagetek, hain ezaguna den Tarderen psikologismoa eta Durkheimen soziologismoa gogoratuz eta gaintzen nahirik, ondoko hau idatzi zigun: «Ez dago ez indibiduorik ez gizarterik bere baitan soilik. Harremanak interindibidualak izaten dira, horietariko batzuek ez dute inolako aldaketarik eragiten indibiduen egitura mentalean; beste batzuek, aldiz, aldi berean izpiritu indibiduala eta talde-taldea birmoldatzen dituzte» (Piaget, 1977: 239). Hala ere, ikus daitekeenez, gaur egun psikologia sozialaren muina diren talde arteko harremanak

ez ditu kontsideratzen; bereziki europar korronteko psikologoek (Tajfel, Turner, Doise, Moscovici eta abarrek) intrataldeen eta intertaldeen interakzio- eta erre-presentazio-prozesuen bidez lotzen dituzten alor sozialaren eta indibidualaren arteko harremana.

4. Haurren eremuan eraikitako gizartea

Kausalitate-ikerketen ondoriozko bi tesi azpimarratzen dira iada J. Piageten lehen lanetan: bata da epistemologia bat eraiki daitekeela haurren pentsamenduaren eremuan, eta ez bakar-bakarrik pentsamendu zientifikoarenean. Eta bestea da eboluzio intelektualak inteligentziaren eta ingurugiroaren ekarpen-trukaketa dakarrela. Esan nahi baita, haurren pentsamendua ezin dela osoki esplikatatu aprioristikoa eta enpiristikoa bereizirik hartuta.

J. Piagetek soziologia orokorraren preokupazio nagusienetarikoa bat soziologia-mota berezi egingo du, belaunaldien arteko arazoa eta sozializazio-prozesua haurren baitan soegiztatu eta esperimentatuko baititu. Haurra ez da soziala sortzez, progresiboki bilakatzen da. Jaiokeran gizarteak ez du ezer aldatzen, eta jaioberriaren portaera-egiturak errobot batek janarituko balitu ere berdinak izango liriteke. Ingurugiroaren elkarrekintzekin jartzen da martxan aldaketa. Elkarrekintza horiek maila sensorio-motorearen (irriño, ahots eta fisionomia-joku, imitazio eta abar) agerpenarekin hasten dira, eta eboluzio mentalaren funtzioan kontsolidatzen dira osotasunean. Interakzio sozial horiek bilakaerarekin gero eta gehiago ugartitzen dira. Haurren soziologia, bada, sozializazio-etapak ikertzeko funtsezkoa da.

Aurreko belaunaldiek ondokoetan duten eragina, askotarikoa, hezkuntza-prozesuaren formatoko bat besterik ez da. Haurren kideek edota komertzioek berdin sozializatzen dute haurra. Are haurra bera baino txikiagoek ere hezi dezakete.

Hala ere, sozializazio-prozesu horren erdigunean haurren eta adinekoen arteko harremanak eta haurren beraien arteko harremanak daude.

Haurren eta adinekoen arteko harremanak hiru kategoriatan banandu zituen Piagetek. Errepresentazio kolektiboaren transmisioarekin eta osaketarekin loturiko harreman intelektualak, akzioaren energetikoari dagozkion harreman afektiboak, eta azkenik, harreman moralak.

Garbi dago haurren eta adinekoen arteko harreman intelektualen garrantzia, eta hizkuntzaren transmisioaren bidez gauzatzen dela. Orain eta hemen, logikaren izaera sozialari buruzko arazoa plazaratzen du. Logika ez dela jitezko haurren eremuan esango digu. 13 -15 urtetan bakarrik lortzen direla operazio formalak edo hipotetiko-deduktiboak adieraziko digu. Logikaren erroak, berriz, akzioen koordinazioan aurkitu behar direla eta inolaz ere ez hizkuntzan.

Nozioen transmisioan akzioen koordinazio-interindibiduala bezainbat intra-indibiduala agertzen da. Bestalde, transmisio soil-soilik ez legoke, jaso duenaren birreraikuntza ezinbestezkoa gertatzen da. Izan ere, birreraikuntza gabeko egia bat ez da gehiagorik egia, faktore extralogikoek sendotutako aburu soilak baizik.

Harreman afektiboak aldien arabera bilakatzen dira. Ez dute barreneko organikoaren heldutasuna bakarrik adierazten. Haurrak adinekoren ingurugiroarekin (familia, eskola eta abar) eta inguru sozialarekin dituen harremanak ere seinalatzeko dituzte. Familien egiturak eta kulturarenak desberdinak direla jakin da, garbi dago barietate-motak daudela.

Bereziki azpimarragarria da haurrak nerabegarora heltzean "krisia" bezala ezaguna den aroa hasten duela. Ordura arteko menpekotasuna uzten du, nola adinekoekikoa hala inguruarekikoa, eta bizitza-egitarau propio bat birreraitzen hasten da.

Sentimendu extrafamiliarren fenomenoak ere deigarria da. Familia baino harago doazen sentimenduez ari gara: erlijiosoak, aberrizaleak eta abar; elkarrekikotasunaren fenomenoak dakartenez, alegia.

Harreman moralek beste ezerk baino nabarmenago erakusten dute belaunaldi batetik besterako hezkuntza-transmisioak errealtate sozial berrien sortzaile direla. Gizarte bateko garaikide soilen artean ez lirateke behin ere gertatuko. Kontzientziatzeko betebeharrak ororen formazio-prozesuan bi baldintza betetzen dira. Lehena indibiduo batek beste bati ematen dion aginduan datza. Bigarrena sentimendu espezifikoko baten ondorioz, agindua jasotzen duenak obeditzen duenean gauzatzen da.

Haurrak bere kideekin gauzatzen dituen harremanek gero eta garrantzi handiagoa dute adin-eboluzioaren arabera. Hastapeneko urteetan haurrak ez du aski lanabes bere kideekin koordinazioak egiteko. Ikuspuntu desberdinen errealtatea ezagutzen ez duenez, koordinatzea ezinezko zaio. Indibiduala eta interindibiduala pare-parean eraikitzen dira. Beste behin konstata dezakegunez, J. Piagetek ez du talde-psikologiaren erreferentziarik islatzen.

Hizkuntzaren alorrean ere eboluzio hau nabarmena da. Hori neurtzeko haurren arteko eztabaidak eta agerpenak iruditzen zaizkio egokienak. Hizkuntzaren portara giro eta toki desberdinetan neurtzea baino fidagarriagoa iruditzen zitzaion bide hori. Ikertzaileei arazo bat bezala agertu izan zaie haurren artean ere leadersak izaten direla konstatazea. Baina, J. Piagetek diosku indibiduen jite diferentzietatik baino gehiago taldeak eman edo kentzen dizkien funtzioetatik janaritzen direla.

Honen guztiaren ondorioz galdera bat formulatu beharra dator. Kooperazioari propioak zaizkion operazio interindibidualak al dira akzioen koordinazioari propioak zaizkion operazio intraindividualak sorrarazten dituztenak, ala aurkakoa da egia? J. Piageten erantzuna ez bairik gabea da: aldi berean indibidual eta sozial den prozesu ebolutibo beraren eiteak besterik ez dira bi fenomeno horiek.

Haurren arteko harreman afektiboak buruz zerbait adieraztera igaroz, bi sozializazio-maila bereizten dituzte: bata pertsonen bizitzaren barreneneko diren izaera afektiboena, eta bestea pentsamendu sinbolikoarena. Luzaz, faktore psiko-biologikoen mendeko kontsideraturiko pertsonalitateak, faktore sozial anitz jasoz nerabegaroz amaituko denak, bilakaera konplexua eduki ohi du. Pertsonak gizartearen jokatzeko dituen roletan, edo bere buruari emanik jokatu nahi lituzkenek, osagai kolektiboz beterikoak izanik, pertsonalitate-hazpegiak dituzte.

Haurren arteko harreman moralak lantzeko araudiari izan beharreko errespetua, jukutriaren kondena eta abar erakusten dituzte erakunde sozialek. Haurren arteko moralaren iturri berezia elkarrekikotasun afektiboaren eta kognitiboaren onarpenean datzala esango digu J. Piagetek. Berdinak kontsideratzen diren indibiduoetatik, eta ondorioz balore komunak onartzen dituztenetatik, sortutako trukean datza elkarrekiko errespetua.

Urrats bat gehiago izango da elkarrekiko errespetua behartzaile dela konprenitzea. Elkarrekiko estimuan oinarritutako truke-baloreak onartzean, partaideek ezin diotela kontraesanik gabe aplikatzeati utzi izango da horren arrazoia. Eta horrela sortutako betebeharra alde bakarreko mendekotasunetik urrunduz, afektibitate-alorrean eta batere ez kognitiboan, koherentzia-beharrera edo behar logikora hurbiltzen da. Gisa horretako betebehar moralaren izaera nagusia indibiduen autonomia da, hots, behartzaile izango diren arauen eraikuntzan partaide bihurtuko dira eta ondorioz ez dute dena bestek egina jasoko. Bestalde, betebeharra aldebakartasunean oinarritzen denean, haurrak egitasun-arauak onarturik ere konprenitu gabe jarrai dezake. Ondorioz, gezurra falta morala dela jakinik ere, nagusiagoentzat bakarrik dela pentsa dezake, zeren eurengandik baitator agindua. Aldiz, haurren arteko gezurra errugabea litzateke.

Elkarrekikotasun-moralaren emaitzarik jatorrena justizia distributiboaren erai-kuntza eta gizalegearen izenean justizia erretributiboa neurtzeko joera dira. Haurrak zerbaitetan justiziaren zentzua atzematen badu berdinen arteko harremanetan da, eta gehienetan adinekoen bizkar egiten du, euren presiopean baino gehiago.

Honek guztiak ondorio garbi bat adierazten du: adinekoen autoritatea baloreen eta horien jarraiko arauen faktore sortzailea izatetik urrun dagoela, eta haurren arteko kooperazioa dela errealitate moralen iturburu aberatsena.

4.1. Sozializazioa eta inhibizioa

Gure egunetan, J. Piageten hamar-hamaika urteko “haur logikoari”, lehenik “haur enpirikoa” oposatu izan zaio (Bideaud eta Houdé, 1989: 87-123). Ez al da bada inhibizioa edo “poxelua”, gizon/emazte arrazionalak “arrisku” bat saihestu nahi duelarik hartzen duen jokabidea? Behin eta berriz egindako ikasketek konfirmatzen badigute ere, hori esplikatzeko modua desberdintzen joan da. Azken funtsean, soluzio enpirikoak erantzun logikoki beharrezkoetatik bereizi izan dira. Horrela, J. Piagetek ikusi ez zuen “efikaziarik gabeko inhibizio” noziara igarotzen gara.

Arrazonamendu deduktiboan eta induktiboan ikasketa esperimentaletan azpimarratu izan denez, nerabeen eta adinekoen artean ere portaera irrazionalen esistentzia masiboa ekoizten dela agertzen digute emaitzek. Horren lekuko, 1) pre- eta post-testetan aurkezturiko Evansen zereginean ondorioztatutako bikote zeharkatuen tipologia, 2) ikasketa-fasearen hastapenean Wasonen hautaketa-zereginari jarraituriko hutsegite masiboa, 3) eta post-testean Tversky-Kahnemanen zereginari jarraituriko hutsegite masiboa. Horiek horrela, arrazonaltasunaren presuntzioa baztertzeko tentazioa badago ere, “inhibizio-ikasketaren” efektuak bestelako ondorioa garamatza, hots, “efikaziarik gabeko inhibizioa” emanik ere, humanoa arrazionala dela konfirmatzeraz. Hau guztia formula batean adieraziz “arrazoitzea inhibitzea ere badela” esan genezake. Nerabeen eta adinekoen artean ere “eraiki-

tze arrazionalak” eta “errakuntza irrazional asmatuek” koesistentzia dutela ageri da (Houdé, 1995: 123).

4.2. Sozializazioa eta mugimendu sozialak

J. Piagetek sozializazioa aipatzen digunean erakundeen ikuspuntutik egiten du. Hasteko, gogora dezagun sozializazioa ereduen, baloreen eta sinboloen norberaganatze-prozesu gisa agertzen duela. Adin guztietan martxan egonik ere, adin batzuetan, hots, haurtzaroan eta nerabezaroan, bereziki azkartzen da. Bigarrenik, nortasunean gizarte- eta kultura-elementuak integratzen joan ohi dira. Hirugarrenik, pertsona bere ingurugiro sozialera egokitzen da.

Pertsonen sozializazioa mekanismo batzuen bidez arautzen da. Eta beste guztien gainetik bi mekanismo daude: aprendizgoarena eta bestearen barneratzearena, alegia. Pertsonen psikean eta organismoan errotuz, bere portaera orientatzen duten bat-bateko ihardukitzeak, usadioak, jarrerak, eta baloreak dira batez ere ikasten direnak. J. Piagetek komunikazioaren garrantzia goraiatu izan digu, eta horren elementu bezala hizkuntzarena eta funtzio sinbolikoarena.

Bestalde, sozializazio-eragileen arazoa dago. J. Piagetek handizki identifikatu eta erakundeturiko taldeak izan zituen kontuan; hala nola, sendia, eliza, etxea, auzoa, herria, nazioa, eskola, etab. Aldiz, berez eta zuzenki hezkuntza ereitea xedetzat ez duten taldeak ez zituen ikertu; adibidez, enpresa, sindikatuak, alderdiak, elkarteak eta mugimendu sozialak; gaurko psisologia sozialean toki berezia hartzen joan diren ikergai-arloak, hain zuzen. Erakundeen psikologia, lanaren psikologia, mugimendu sozialen psikologia eta abar diziplina gotor bilakatzen joan dira geroztik. Eta beste interes batzuen alboan, dimentsio sozializatzailea garrantziko gertatzen da beroietan.

Mugimendu sozialak, tradizionalki pribatua (gorputza, sexualitatea, harreman afektiboak), subjektiboa (prozesu kognitibo eta emozionalak, motiboak, nahitasunak) eta biologikoa (burmuinaren egitura, kodigo genetikoa, ugaltzeko gaitasuna) kontsideratzen genituen alorrak kontrol sozialaren eta manipulazioaren xede bihurtzen ikusi ditugunean, interes biziko agertzen joan zaizkigu. Zeren aipatutako kontrol sozialaren eta manipulazioaren alorrak aparatu teknozientifikoaren, informazio- eta komunikazio-agentzien eta erabaki politikoko zentruen eskuetan erortzean, autonomia lortzeko eginkizuna birplanteaturik, indibiduen eta talde zibilen ekimena eratzen joan baita. Eta horiek diren eta egiten dutenaren adierazpena eraikitzen deneko espazioa birreskuratzean identitate-bilakuntza gertatzen da. Horrek gaurko psikologia soziala bere emaitza oparoenetara eraman du: identitate sozialaren eta autokategorizazioaren teoriak lekuko (Tajfel,1984; Turner,1990). Mugimendu sozialen soziologia gai berera etortzen ikusi dugu azken urteetan. Horrela hain tradizionala den identitate kolektiboaren kontzeptua interakzionismo sinbolikoarekin gurutzatu da. Melucci eta Touraine (Melucci,1992; Touraine,1978) ditugu lekuko. Berezi Meluccic fokatzeko berri horren ardatza den idea adierazi du: «identitate kolektiboa gizartearen egitura-izaeraren ondorio ez ezik akzio kontzientearen eta autoerreflexio indibidualaren fruitu da» (Melucci,1992).

Identitate kolektiboa gutxienez bi eratara hauteman dezakegu: aktore sozialen portaera indibidualetan zerikusia duten adierazpenen aurretik emaniko multzo gisa, interpretazioen markoa dena, eta agindu normatibo eta ebaluatiboen markoa; edota barreneko solidaritateak eta kanpoarekiko mugak gordetzera zuzenduriko aktibitateak osatzen dituzten taldeen barreneko elkarrekintzaren ekoizpena den mugimendu gisa.

5. Ondorioztatuz: lege orokorren malenkonia

Augusto Comtek soziologia «fenomeno sozialei dagozkien funtsezko legeen multzoa ezagutzeko ikasketa positibo» gisa definitu du. Era berean, autore berak garbi utzi du ikasketa hori ezin zitekeela izan «gizabanakoaren ezagutzaren dedukzio hutsa». Ordutik soziologia, bere saio desberdinen bidez, akzio sozialaren ikasketarako objektua, metodoa eta lege orokorrak ezagutzera bideratu da.

Fisika sozialetik hasi eta, “ismo” guztien izenean egindako saioek xede berbera izan dute. “Ismo” horien arteko joera nagusiek soziologiaren historia markatu dute: positibismoak, eboluzionismoak, funtzionalismoak, estrukturalismoak, marxismoak, akzionalismoak eta abarrek. Baina, beti izan zaie ezinezkoa lege orokorrak agortzea.

Augusto Comtek bizitza sozialeko arazo nagusizat zuen “belaunaldien arteko presioa” ikertzeko, J. Piagetek haur-psikologia objektutat eta genetismoa horretarako bidetzat hautatu zituenean (Piaget,1977:240), arrazoa zenbateraino den banako garapenaren edo gauza sozialaren ondorio jakiteko, haurra soegiztatzea hartu zuen metodo egokitzat. Bere ikerketaren emaitzak oparoak izan ziren, nahiz eta erlatiboak agertu. Ezin izan zitekeen bestela. Jakintza beraren legepean erortzen diren beste guztiak bezala. Hala ere, ezagutzaren psikosoziozologian bezala garapenaren psikosoziozologian ezinbesteko erreferentzia dira bere lanak. Era berean, epistemologia eta biologia kitzikatzeko balio duen neurrian, bere ekarpena ez da gutxietsi behar.

Bi eratako lan zientifikoak bereiziko bagenitu, bata aplikazioetan eredu aberatsak dituen litzateke, eta bestea gogoeta eta ikerketa animatzeko beti emankor diren teoria heuristikoduna litzateke. Azken horrek agerian berehalako praktikotasun gutxiago badu ere, etengabeko planteamendu berrietarako zoria luke. Horixe da hain zuzen J. Piageten obraren ezaugarririk funtsezkoena.

Azken hamarkadetan, Parsons eta Homansen (Buckley,1967) bidez soziologian gauzatu den ikerketa teorikoen korranteak, sistemen teoria izendatzen denak, badirudi J. Piageten jokabideari konkurrentzia egin diola. Soziologian behin eta berriz erabili den sistema kontzeptuari zorrotasun gehiago eman nahi izan diote. Azterketa sistemiko batean, aldi berean, jarraipena eta haustura daudela jokuan ondorioztatzen da beraien planteamenduetatik. Jarraipena dago azterketa sistemiko batean, postulatu beretan oinarrituta eta antzeko helburuetara bideratuta, errealitatearen maila guztietan aplikatzen ahal delako, zelula organikotik unibertso soziokulturaleraino. Kasu horretan Augusto Comten goi nahikudea beteko luke zeharka: intentzio eta metodologia berean oinarrituta zientziaren alor orotan, aldi berean, jakintza zientifikoaren izaera bakarra lortzen aritzea, alegia. Baina, ezagutza-

-mailako jarraipena hausturaz josita bilakatzen da, sistema-eredu berbera ez baita aplikagarria errealitatearen maila guztietan. Maila batetik beste batera igarotzeak sistema sinpledun eredu bat baztertu beharra ekar baitezake, beste sistema konplexu baten faboretan. Bereziki sistema sinpletik sistema konplexura igaro behar hori ezinbesteko ageri da errealitate soziokulturalaren errealitatearekin topo egiten denean.

Arazoaren muina oraingoz sistema konplexuaren definizio zientifikoa datza. Alor soziokulturean integratu beharrezko ezagutzak izanik forma desberdinetako komunikazio-fenomenoak, ekintza eta elkarrekintzetako sinboloen usadioa eta errola, eta giza ekintzaren dimentsio kolektiboan nahiz banakoan dagoen jite finalista, biziki zail da gaurkoz zorrotasun zientifikodun sistema konplexua operatibizatzea. Zibernetika, informatika, errobotika eta komunikazioaren ezagutza berriak konpaktatuzetik igarotzen da.

Erreferentzia bibliografikoak

- Bideaud, J. eta Houdé, O. (1989): "Le développement des catégorisation: 'Capture' logique ou 'capture' écologique des propriétés des objets?", *L'Anné Psychologique* **8**.
- Buckley, W. (1967): *Sociology and Modern Systems Theory*, Prentice-Hall, Inc., Englewood Cliffs, N.J.
- Cohen, D. (1980): *Los psicólogos hablan de psicología*, Cátedra, Madril.
- Durkheim, E. (1967): *Règles de la méthode sociologique*, PUF, Paris.
- Greenberg, J. eta Folger, R. (1988): *Controversial Issues in Social Research Methods*, Springer, New York.
- Houdé, O. (1995): *Rationalité, développement et inhibition*, PUF, Paris.
- Mauss, M. (1966): *Sociologie et anthropologie: "Essai sur le Don"*, PUF, Paris.
- Melucci, A. (1992): "The Process of Collective Identity", working papers in International Workshop on Culture and Social Movements, San Diego.
- Mulaik, S. A. (1987): "Toward a Conception of Causality Applicable to Experimentation and Causal Modeling", *Child Development* **58**.
- Palacios, X. (1994): *Jean Piaget y las ciencias humanas*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz.
- Perret-Clermont, A. N. (1984): *La construccion social de la inteligencia*, Visor, Madril.
- Piaget, J. (1977a): "Logique génétique et sociologie" in *Etudes sociologiques*, Librairie Droz, Genève/Paris.
- , (1977b): "L'explication en sociologie", in *Etudes sociologiques, op. cit.*
- , (1977c): "Logique génétique et sociologie", in *Etudes sociologiques, op. cit.*
- , (1977d): "L'individualité en histoire. L'individu et la formation de la raison", in *Etudes sociologiques, op.cit.*
- Secord, P. F. (1986): "Social Psychology as a Science", in J.Margolis y cols (Arg.), *Psychology Designing the Discipline*, Basil Blackwell, Oxford.
- Tajfel, H. (1984): *Grupos humanos y categorías sociales*, Herder, Bartzelona.
- Touraine, A. (1978): *La voix et le regard*, Seuil, Paris.
- Turner, J. C. (1990): *Redescrubir el grupo social*, Morata, Madril.